Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea
NAZIOARTEKO BIKAINTASUN CAMPUSA
CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL

**2018/2019 IKASTURTEKO BERRIKUSKETA**
UPV/EHUKO ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA FAKULTATEKO
Akademia Gestio Zerbitzua

# Zerbitzuen Kartaren emaitzak

Onarpen data: 2020ko martxoaren 6a




Inkesta bete duten erabiltzaileen artean, % 86a konforme dago jasotako informazioarekin. % 12a ez dago konforme jasotako informazioarekin. % 5ak ez daki, ez du erantzun.

Inkestari erantzun dioten Akademia Gestio Zerbitzuaren erabiltzaileek **jasotako informazioarekiko duten asebetetze maila batez beste 5etik 4,08 da.**




Inkesta bete duten erabiltzaileen % 58k uste du erraza izan dela web-orrian informazioa eskuratzea. % 18k uste du ez dela erraza izan behar zuten informazioa eskuratzea. % 24a ez da Zerbitzuko web-orriko informaziora sartu edo ez dio galderari erantzun.

Beraz, inkestari erantzun dioten Akademia Gestio Zerbitzuaren erabiltzaileek **Zerbitzuko web-orrian informazioa eskuratzeko erraztasunarekiko duten asebetetze maila batez beste 5etik 2,55 da.**




Jasotako tratuari buruz, berriz, % 87a konforme agertzen da. % 13a ez dago konforme jasotako tratuarekin.

Inkestari erantzun dioten Akademia Gestio Zerbitzuaren erabiltzaileek **jasotako tratuarekiko duten asebetetze maila batez beste 5etik 4,26 da.**




Espedienteen tramitazioan, gerta daiteke egindako akatsak zuzendu behar izatea. Grafikoan ikusi daiteke zuzendu behar izan diren espedienteen ehunekoa.

Azken zutabeak Akademia Gestio Zerbitzuak egindako zuzenketak adierazten ditu, hau da, bi alorretako espedienteen artean zuzenketen guztizko kopurua.

Zerbitzuak egindako **zuzenketen ehunekoa % 0,58 da.**

Ohar garrantzitsua: Onartutako Zerbitzuen Kartan erabaki zen Konpromiso adierazleei baliorik ez ematea, balio egokiak kalkulatzeko datu nahikoa ez dagoen bitartean. Horregatik, txosten honetan inkestetan jasotako emaitzak eta lortutako datuak soilik agertzen dira. Hala ere, azpimarratzekoa da jasotako informazioarekiko eta tratuarekiko dagoen asebetetze maila altua.

## Indarguneak

Ikasleei eskainitako informazioarekiko eta tratuarekiko asebetetzea.
Egindako zuzenketen ehuneko baxua.

## Hobetzeko arloak

Web-orrialdeko informazioa.